

**II. ERANSKINA.–ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENERAKO EREDUA,
TURISMO IBILTARIAN ARI DIREN AUTOKARABANETARAKO, BIDAIA DIREN
KARABANETARAKO ETA ANTZEKOETARAKO GAUA IGAROTZEKO EREMUAK
NAFARROAKO TURISMO ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO, DATUAK ALDATZEKO
EDO BAJA EMATEKO**

1.–ESKAERAREN XEDEA	
<input type="checkbox"/>	Irekiera
<input type="checkbox"/>	Jarduerari berriz ekitea aldi baterako eten ondoren
<input type="checkbox"/>	Birsailkatzea (adierazi aurreko kategoria)
<input type="checkbox"/>	Titularra aldatzea
<input type="checkbox"/>	Baja ematea
<input type="checkbox"/>	Beste batzuk

2.–EREMUAREN DATUAK (* duten datuak publikoak izanen dira)			
Eremuaren izena*			
Katastroko lurzatia (udalerrria, poligonoa, lurzatia)			
Helbidea (kalea, zenbakia)*			
Posta kodea*		Herria*	
Harremanetarako telefonoa			
Harremanetarako helbide elektronikoa			
Webgunea			
Arduradunaren izen-deiturak		NANa/AIZ	
Arduradunaren sexua	<input type="checkbox"/> Emakumezkoa	<input type="checkbox"/> Gizonezkoa	<input type="checkbox"/> Beste bat
Turismo Erregistroan inskribatu beharreko lurzati kopurua.			

3.–TITULARRAREN DATUAK (eremua kudeatzen duen pertsona fisiko edo juridikoa)			
Sozietate izena / Izen-abizenak			
NAN/AIZ/IFK			
Titularraren sexua	<input type="checkbox"/> Emakumezkoa	<input type="checkbox"/> Gizonezkoa	<input type="checkbox"/> Beste bat
Helbidea			
Posta kodea		Herria	
Telefonoa			
Helbide elektronikoa			

4.–ORDEZKATZEN DUEN PERTSONAREN DATUAK (bete baldin eta eskaera titularraren ordezkari izateko egiaztagiria aurkeztu beharko da)			
Izen-deiturak			
NANa/AIZ			
Ordezkiaren sexua	<input type="checkbox"/> Emakumezkoa	<input type="checkbox"/> Gizonezkoa	<input type="checkbox"/> Beste bat
Helbidea			
Posta kodea		Herria	
Telefonoa		Helbide elektronikoa	

5.–ADMINISTRAZIOAN ALDEZ AURRETIK IZAN BEHARREKO INFORMAZIOA (markatu soilik hala badagokio)	
<input type="checkbox"/>	Araudi turistikora egokitzeari buruzko alde aurreko kontsulta.

6.-II. TITULUKO I. KAPITULUAN ADIERAZITAKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA AURKEZTEKO BETE BEHARREKO EZINBESTEKO BETEKIZUN TEKNIKO OROKORRAK.

- Itxitura perimetrala (5. art.).
- Lurzatiak (6. art.).
- Bideak (7. art.).
- Argiztapena (8. art.).
- Seinaleak (9. art.).
- Sarbidearen kontrola eta zaintza sistema (10. art.).
- Bereizgarria (11. art.).
- Zerbitzuak eta instalazioak (12. art.):
 - Kontsumorako egokia den ur-hargunea.
 - Ur beltzak eta grisak husteko bilketa-gunea.
 - Hondakinak gaika biltzea.
 - Informazio-panela.
 - Lehen sorospentarako botika-kutxa.

7.-KATEGORIA BAKOITZERAKO BETEKIZUN TEKNIKOAK

Gaua igarotzeko eremurako eskatzen den kategoria adierazi, hautatu lau hauetatik bat bakarrik: Oinarrizkoa, Plusa, Osagarri oinarrizkoa eta Osagarri plusa. Hautatutako kategoriarako ezarritako betekizun tekniko guztiak bete beharko ditu eremuak.

- OINARRIZKO EREMUA
- PLUS EREMUA
- OINARRIZKO EREMU OSAGARRIA
- PLUS EREMU OSAGARRIA

7.1. OINARRIZKOA

6. apartatuan adierazitako betekizun orokor guztiak bete beharko ditu.
- 10 leku baino gehiago baditu, honako hauek izan beharko ditu (13. art.):
- Dutzak eta higiene-zerbitzuak.
 - Harraska.

7.2 PLUSA

6. apartatuan adierazitako betekizun orokor guztiak bete beharko ditu, baita honako hauek ere:
- Nahitaezko zerbitzuak eta instalazioak (14. art.):
 - Dutzak eta higiene-zerbitzuak.
 - Harraska.
 - Elektrizitatea.
 - Ibilgailu elektrikoak kargatzeko estazio bat, 10 lurzati baino gehiago dituzten eremuetan.
- Honako zerbitzu gehigarri hauetatik hautatu 3, gutxienez:
- Arropa-garbigailu industrialak.
 - Aisiarako espazioak.
 - Maskotendako aisiarako espazioak.
 - Wifia.
 - Zerbitzuetako langileak.
 - Herrira joateko garraioa.

- Kirol-zerbitzuak erabiltzeko aukera.
- Itzala emateko estalkia.
- Espazio edo areto komunak.
- Askaldegiak.
- Autogarbiketarako eta izotzaren aurkako sistema automatizatua.

7.3. OSAGARRI OINARRIZKOA

6. apartatuan adierazitako betekizun orokor guztiak bete beharko ditu.

- Ezarritako gaua igarotzeko eremuan baldintza espezifiko guztiak betetzea.
- Betekizunetatik salbuestea interes turistiko handiko jarduera edo establezimendu turistikoak betetzen dituelako (15.2 artikulua).

7.4. OSAGARRI PLUSA

6. apartatuan adierazitako betekizun orokor guztiak bete beharko ditu.

- Ezarritako gaua igarotzeko eremuan 7.2 apartatuan adierazitako baldintza espezifiko guztiak betetzea.
- Betekizunetatik salbuestea interes turistiko handiko jarduera edo establezimendu turistikoak betetzen dituelako (15.2 artikulua).

OHARRAK:

Nahitaezko betekizunetakoren batean argibideren bat eman nahi izanez gero, idatzi honako koadro honetan:

8. NIRE ERANTZUKIZUNPEAN DEKLARATZEN DUT:

1.–Adierazpen honetan jasotako datuak egiazkoak dira.

2.–Adierazitako gaua igarotzeko eremuak martxoaren 6ko 22/2024 Foru Dekretuan ezarritako betekizunak betetzen ditu, baita aplikatzekoak diren gainerako arauetan ezarritakoak ere. Gainera, jarduera indarrean dagoen bitartean horiek betetzeko konpromisoa dago.

3.–Honako betekizun hauek betetzen dira:

–Adierazitako pertsona fisiko edo juridikoa izatearen egiaztagiria izatea.

–Gaua igarotzeko eremuaren jabea edo errentaria dela egiaztatzen duten agiriak edo eremuaren ustiatzailea izatea justifikatuko duen edozein titulurena.

–Ustiatzeko erantzukizun zibileko aseguru baten kontratua izatea eta horrek gutxienez 150.000 euroko zenbatekoa estaltzea. Honako datu hauek izanen ditu:

- Polizaren zenbakia:
- Aseguru entitatea:

–Legez exijitutako baimen sektorialak izatea.

4.–Funtzionamenduaren araubidean sortutako betekizunak (Nafarroako Foru Komunitatean barna turismo ibiltarian ari diren autokarabaneak, bidaiari diren karabaneak eta antzekoek non igaro dezaketen gaua arautzen duen martxoaren 6ko 22/2024 Foru Dekretuaren III. titulua) betetzeko konpromisoa hartzen du.

5.–Nahikoa botere du ordezkari izateko (ordezkari baten bidez jardunez gero).

6.–Indarrean dagoen araudian ezarritako irisgarritasunaren eta diskriminazio ezaren betekizunak betetzen direla, zehazki, honako hauetan jasotakoak: 193/2023 Errege Dekretua, martxoaren 21ekoa, zeinaren bidez arautzen baitira jendearen esku jartzen diren ondasun eta zerbitzuak eskuratu eta erabil ditzaten irisgarritasunaren eta diskriminazio ezaren oinarritzko baldintzak, eta 31/2022 Foru Legea, azaroaren 28koa, Nafarroan desgaitasuna dutenei arreta emateari eta beren eskubideak bermatzeari buruzkoa.

7.–Administrazioak eskatzen dizkion agiri guztiak entregatzeko konpromisoa hartzen du, eta adierazpenarekin batera honako agiri hauek aurkezten ditu:

Obra bukaerako planoak edo 1:100 eskalako planoak, zeinetan adieraziko baitira lekua, erabilera bakoitzerako eremuak eta lurzati bakoitzaren azalera. Halaber, suteen kontra babesteko instalazioak agertuko dira. Hori dena teknikari eskudun batek sinatuko du.

Argazkiak, euskarri informatikoan (.jpg), Nafarroako Turismo Erregistroan inskribatu aurreko tramiteen gidan adierazitakoaren arabeko izenarekin eta zenbakituta.

Titulartasuna aldatuz gero, titularraren agiri pribatu bat aurkeztu beharko da Nafarroako Turismo Erregistroan, tramite hori egiteko baimena ematen duela adierazteko. Hori ordeztzen duen agiri bat aurkezten ahalko da.

Hala badagokio, eskatutako tramitea(k) egiteko ordezkartzaren egiaztagiria.

8.–Interesdunak badaki erantzukizunpeko adierazpenari erantzen zaion edozein datu, adierazpen edo agiri, funtsean, okerrak edo faltsuak badira, edo zerbait falta bada, zein erantzukizunpeko adierazpenik aurkezten ez bada, ez dela segitzen ahalko ukitutako eskubide edo jarduerarekin, gertaera horien berri jakiten den unetik beretik, deusetan galarazi gabe legokiokeen erantzukizun penal, zibil eta administratiboa. Halaber, inguruabar horiek adierazten dituen ebazpenak xedatu ahal izango du gaua igarotzeko eremua ezin dela inskribatu gehienez ere 6 hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten denetik zenbatzen hasita.

9.–Jakinaraziko du establezimenduan egiten duen edozein aldaketa, jarduera bertan behera uztea, eta, oro har, jasotako datuetan gertatzen den edozein aldaketa.

Beraz, jakinarazpen honen bidez, egintzat jotzen da Nafarroako Turismo Erregistroan inskribatzeko tramitea.

Tokia eta data	Izena eta sinadura